

## **EMAKUMEEN ETXEAREN PROIEKTUARI BURUZKO 6. GOGOETA-JARDUNALDIAREN AKTA**

### **5/2010EKO BILERAREN AKTA**

Eguna: 2010eko apirilaren 30a

Ordua: 16:00

Tokia: Udalbatza Aretoa

#### **BILDUTAKOAK:**

- ✓ Independentea (2)
- ✓ Emakumeak eta Hiria Foroa eta Garraldi (1)
- ✓ Garraldi (1)
- ✓ Dandai (4 ordezkari)
- ✓ Aranzazu etxekoandreen elkarte (2)
- ✓ Intxaurrondo Berri (2)
- ✓ Katxalin (2)
- ✓ Bilgune Feminista (1)
- ✓ Emakumea – La Mujer (1)
- ✓ Plazandreok (3)
- ✓ Lilaton taldea (1)
- ✓ Amnistia Internazionala eta EHUko Gizarte Kontseilua (1)
- ✓ Emakumeak eta Hiria Foroa eta Emakumeen Etxea elkarte (1)
- ✓ Gipuzkoako Emakume Bananduen Elkarte (1)
- ✓ Asade (1)
- ✓ Hizkuntz Normalizazio, Berdintasun eta Lankidetzako zinegotzi ordezkaria (1)
- ✓ Zinegotziaren aholkularia (1)
- ✓ Berdintasuneko teknikaria (1)
- ✓ Berdintasun eta Lankidetzeta Atala (1)

#### **EZIN ETORRIA ADIERAZI DU**

- ✓ Gehitu.

Zinegotziak hasiera eman dio bilerari, labur azalduz balitekeela Emakumeen Etxearen proiektuaren inguruan bildutako emakumeek helburu eta interes desberdinak izatea, baina ez dutela, horratio, beldurrik izan behar zeinek bere iritzia emateko. **Eraikitze bidean dagoen proiektu** bat da eta **Okendo proba-eremua izango da**; hortaz, orain erabakitzen duguna, aldatuz joan daiteke denborarekin ikusten bada ez duela funtzionatzen. Erakundeen eta elkarten erritmoak diferenteak dira, baina denbora aurrera doa eta beharrezkoa da erabakiak hartuz joatea.

Plazandreak eko ordezkariak galdetu du gutxi gorabehera noiz sartuko garen Okendon, eta erantzun zaio iraila aldera izango dela.

Gai zerrenda eta bileraren funtzionamendua azaldu eta gero, gaiei heldu diegu.

### **1. Azken bilera arte iritsitako akordioak errepasatzea.**

Helburu Orokorra, Jarduera Ildoak, Printzipioak, Zerbitzuak eskaintzeko Irizpideak, Funtzioak, Zerbitzuak, Proiektuak, Ekintzak eta Espazioaren Funtzionalitatea (ikus Power Point).

### **2. Kontzeptuak argitzea: zerbitzuak/ekintzak/programak.**

*Zerbitzu publikoa, Zerbitzu asistentzialista eta Zerbitzu ez-asistentzialistari* buruzko definizioak eman dira. Zerbitzu, ekintzen eta baliabideen adibideak eman dira, eta azpimarratu da elkarren bateragarri direla (ikus Power Point).

### **3. Elkarteek Etxean zerbitzuak emateko aukera. Laburpena.**

2010/03/26ko bileran, Berdintasun Atalak fitxa bat egitea erabaki zen, gaur egun hirian emakumeei zerbitzuak ematen dizkieten elkartei buruz dagoen informazio guztia jasotzeko. Fitxa egin da, interesatutako elkarte gehienekin egiaztatu da eta posta elektronikoz bidali da, bilerara etorri direnei paperean emateaz gain.

Ondorio nagusia da **bi elkarte bakarrik daudela prest Etxean zerbitzu egonkor bat emateko: Emakume Bananduen Elkarte** eta **Emakumea – La Mujer Elkarte**. Lehenak **aholkularitza juridikoko zerbitzua** eman lezake **famili zuzenbidearen alorrean**, astean behin, arratsaldean. Bigarrenak, **informazio orokorreko zerbitzua** eman lezake, astean behin, goizez zein arratsaldean. Azken elkarte honek uste du egokia litzatekeela elkarteek Etxean ematen dituzten zerbitzuengatik diruzko ordaina jasotzea.

Gainontzeko elkarteak interesatuta daude Etxean ikastaroak, hitzaldiak eta bestelako ekintzak egiten, baina horiek ez lirateke sartuko zerbitzuen atalean, hemen definitu ditugun moduan behinik behin.

Plazandreeko ordezkariak batek, abokatu profesional moduan, genero indarkeriaren arloko ofiziozko txandako abokatu-taldekora denez, aditzera eman du kudeaketa batzuk egiten ari dela bere kasa jakiteko ea ofiziozko txandako emakume abokatu batzuk prest egongo liratekeen salaketa aurreko aholkularitza zerbitzua (gaur egun Gipuzkoako Aldundiak finantzatzen du) Emakumeen Etxean emateko, beren bulegoetan eman behar. Proposamena ontzat jo dute bileran daudenek.

Emakumeak eta Hiria Foroa eta Emakumeen Etxea elkarteako ordezkariak galdetu dio Emakumea Elkarteak ordezkariari diruzko ordainari buruz. Honek erantzun dio, bere iritziz,

elkarteen ahalegina aitortzeko eta beren jarraipenari laguntzeko modu zuzena dela. Gainera, bere ustez, Etxean zerbitzuak eman litzaketan elkarte batzuek atzera egin dute beste elkarteengan topatu duten jarrera defentsiboagatik. Gai hauek lantaldeetan aztertzen jarraitzea erabaki da.

#### 4. Azken bileran iritsitako akordioak.

Berdintasun Atalaren iritziz, 2010/03/26ko bileran akordio batzuk lortu ziren, baina, denbora agortu zenez eta bukaera aldera denok oso nekatuta geundenez, baliteke gauza batzuk behar bezain argi gelditu ez izana. Horregatik, Atalaren iritziz adostu ziren gaiak aipatu dira eta, gero, berriro eztabaidatu dira taldeetan. Hona hemen galderak:

1. *Zerbitzurik eskaini behar al da Okendon?*

Baietz erabaki zen.

2. *Aurkeztutako zerbitzuetatik, zeinek dute lehentasuna Okendon abian jartzeko?*

Indarkeriak, immigrazioak, gizarte eta lan integrazioak eta salaketak jarri aurretik informazioa emateak.

3. *Ba al dago Okendorako lehentasunezkoa izanik aurkeztu ez den zerbitzurik?*

Sexu informazio-zerbitzua.

4. *Zer baldintzatan eman beharko lirateke zerbitzu horiek?*

Irabazi xederik gabeko erakundeek eman beharko lituzkete eta doakoak izan beharko lukete erabiltzaileentzat.

#### 5. Taldeetan lan egindakoa osoko taldean adieraztea.

Lehenengo galderari, hiru taldeek baietz erantzun diote, baina batek adierazi du zerbitzuek ez dutela izan behar funtsezkoena edo garrantzitsuena Etxean.

Bigarren galderari dagokionez, ados daude, baita ere. Honakoak jotzen dituzte lehentasunezko zerbitzuetatik: **Emakume etorkinentzako aholkularitza, Aholkularitza juridikoa genero indarkeriari eta famili zuzenbideari dagokienez** (banaketak), **Gizarte eta lanari buruzko informazioa** eta **Sexu-informazioa**. Esan dute enpleguari buruzko informazioari dagokionez, sindikatuekin hitz egin litekeela eta, bestalde, interesgarria litzatekeela laguntza nahiz auto-laguntza taldeak sortzea indarkeria sexista jasan duten emakumeentzat, gaur egun Aldundiak ematen duen banakako laguntza psikologikoa osatzeko. Hirugarren galdera bigarrenean sartuta legoke; izan ere, gaur egun inolako elkartek ez du sexu informazio-zerbitzurik ematen.

Laugarren galderari dagokionez (zer baldintzatan eman beharko liratekeen zerbitzuak), honako irizpideak aipatu dira:

- Ematen diren informazioak **ikuspuntu feminista batetik orientatuak egotea**, hau da, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren ikuspuntutik, eta genero-sistema ez errepikatzea. Ez erabiltzea "erabiltzaile" hitza, beste hitz batzuk baizik.

- Informazioa ez izatea aseptikoa, **hurbila eta beroa** baizik. Informazio bila doazen emakumeek beste erakargarri batzuk aurkitu ditzatela Etxean. Borondatezko sareak sortzea, emakumeek elkarri lagun egiteko eta elkartasuna erakusteko.
- **Zerbitzuak ematen dituztenak prestatuta egotea**, eta Berdintasun Atalak kudeatutako prestakuntza gehiago jaso ahal izatea.
- **Zerbitzuak ematen dituztenek parte hartzea Etxean egiten diren batzarretan edo koordinazio bileretan.**
- Etxean ematen diren **zerbitzuen jarraipen sistematikoa** egitea.
- Zerbitzuak ematen dituzten **erakundeak irabazi xederik gabeak** izatea eta zerbitzuak **doakoak** izatea erabiltzen dituzten **emakumeentzat**.
- Ahaleginak egitea edozein motatako enpresa edo profesionalak Etxeaz balia ez daitezzen bezeroak erakartzeko.
- Ez lortzea **onura pertsonal ekonomikoak** Etxean zerbitzuak emateagatik.

Etxean zerbitzuak ematen dituzten elkarteei ordain bat ematea dela-eta, **Berdintasun Atalak ematen dituen diru laguntzetan beste balioespen irizpide bat sartzeko** aukera aipatu da, elkarte horiei aparteko ordain bat emateko diru laguntzen bitartez. Proposamenak harrera ona izan du.

Planteatu da zer egin elkarteek ezin badituzte eman lehentasunezkoztat jotzen diren zerbitzu batzuk. Aukera batzuk eman dira:

- Immigrazioaren arloan lan egiten duten elkarteekin berriro hitz egin eta insistitzea (Garaipen, SOS Arrazakeria).
- Egonkortasunez eman ezin diren zerbitzuak ekintza bihurtzea.
- Borondatezko laguntzaileak bilatzea.

## 6. Hitzarmenak

Hitzarmenen ezaugarriak labur azaldu eta gero, Udalak abian dituen hitzarmenei buruzko informazioa eman da:

- Udalaren eta EHUren arteko hitzarmena.
- Udalaren eta Emakunderen arteko hitzarmena.
- Udalaren eta Gipuzkoako Batzar Nagusien arteko hitzarmena.

Emakumeen Etxea elkarteak zein Udalak hitzarmenak egiteko beste aukera batzuk aipatu dira (bi edo hiru alderen artean sinatu daitezke).

Emakume batzuek zalantza egiten dute momentu honetan komeni ote den Udalak bere kasa sinatzea hitzarmenak beste erakunde batzuekin, Emakumeen Etxea elkarteak hitzarmen horietan parte hartu gabe. Bilgune Feministako ordezkariak dio Emakumeen Etxea elkarteak sinatzen diren hitzarmen guztien erdigunean egon beharko lukeela. Plazandreoakeko ordezkariak, Asadekoak eta Farapikoak gogorarazi dute elkarren arteko kudeaketaren alde hartutako konpromisoa eta azpimarratu dute hitzarmenak hiru alde sinatu behar dituztela (Udala, Emakumeen Etxea elkarte eta beste erakunde bat). Bestalde nabarmendu dute Emakumeen Etxearen elkarte autonomoa dela bere kasa hitzarmenak egiteko Udalarekin elkarlanean aritzeari uko egin dioten elkarte batzuekin, adibidez, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin edo banku-erakundeekin.



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián



BERDINTASUNAREN ALDEKO  
DONOSTIAKO EMAKUMEEN KONTSEILUA  
CONSEJO DE LAS MUJERES DE  
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN POR LA IGUALDAD

Berdintasun eta Lankidetzaren Atala  
Sección de Igualdad y Cooperación

Ijentea, 6 - Tel. 943481471 - 943481413 - Faxe 943481843 - [www.donostia.org](http://www.donostia.org)  
20003 Donostia-San Sebastián

Erabaki da elkarteak hitzarmenei eta elkarren arteko kudeaketari buruz pentsatuz eta haien artean eztabaidatuz joan daitezen. Horrela, hurrengo bileran, gai horiei buruz izango baita, nahiko elementu izango ditugu eztabaidarako.

**Emakumeen Etxeari buruzko hurrengo gogoeta-jardunaldia:** ekainaren 4an, 16:00etan.

Bilera 17:30ean amaitu da.

Donostia, 2010eko maiatzaren 11